

KONTROL MOZIOA

ERRONDO AUZOAK DITUEN EKIPAMENDU FALTA DELA ETA

Naiara Sampedro Perezek EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du, Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2017ko martxoko Gune Publikoen Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

2016ko urtarrilaz geroztik, Errondoko Auzo Elkarteak behin baino gehiagotan Udal Gobernuarengana jo du auzoko segurtasuna eta ekipamendu falta dela eta proposamenak egitera baino orain arte ez dute erantzunik jaso.

2016ko urriko Pertsonen Zerbitzu Batzordean, gaiaren aurrerapenez eta bizilagunek izan duten erantzun faltaz interpelatu genuenean, Kutzarekin kontakturik eman ez zela erantzun zitzaigun eta horiek horrela, urriko udalbatzarrean, talde honek aurkeztuta eta talde politiko guztiek babestuta, abendura bitartean Kutzarekin harremanetan jarri eta Aizkolene bideko frontoi eta eremua auzoak dituen beharrak asetzeko erabiltzeko bidea lantzen has zedin, Errondo auzoko bizilagun eta elkarte emandako pausoen inguruan informatzea onartu zen.

2017ko otsaila eta martxoa bitartean, auzo elkarteak erantzunik eta informaziorik jaso ez duela jakinarazi digutenean, urriko udalbatzarrean onartutako kontrol mozioa bete ez dela konturaturik, martxoko batzordeetan interpelatzea erabaki genuen.

Gure harridurarako, kontrol mozioa bete eta gaia kudeatzen hasteko denbora izan duenez Udal Gobernuak, aurrerapausoak emango zirela uste genuen, baina gaia alboratuta egon dela konturatu gara.

Horiek horrela, hauxe da behean sinatzen duen zinegotziak aurkeztutako

KONTROL MOZIOA:

EH Bildu talde politikoa
Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - Tel. 943481027 - www.donostia.eus -
20003 Donostia

1.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari koordina ditzala apirila bitartean beharrezkoak diren udal sailen eta ordezkari politikoen arteko lanak, Kutxarekin harremanetan jarri eta Aizkolene bideko frontoi eta eremua auzoak dituen beharrak asetzeko erabiltzeko bidea lantzen hasteko.

Donostian, 2017ko martxoaren 24an



Naiara Sampedro Perez
EH Bilduko zinegotzia